

Pello Zabala eta Joxe Landa

Joxean Agirre

Poesiaren, kontenplazioaren eta zientziaren arteko muga dabilen zaletasuna da eguraldi iragarle amateurrena. Pello Zabala joan da, Joxe Landa gelditzen da. Lehen orain urte asko Euskalmetek baztertu zuen Euskadi Irratitik. Bigarrenak 40 urte daramatza egunkari honen azken orrialdeetako eguraldi iragarpenak egiten eta jubilatu zenetik (91 urte ditu) zortzi irratitan ematen du bere ahotsez eguraldiaren berri goizero, guztietan musu truk eta oporrik gabe.

Bazituzten diferentziak. Batak, fraidea zelako edo, tenporetan sinesmen handia zuen. Joxek, ateo porrokatua izanik, Elizaren mamua ikusten du siniskeria horietan. Baina azaleko diferentziak gorabehera, biak dira obsesio izugarri baten fruitu: zeruari begira

eman dituzte egunero orduak eta orduak. Badakit, noski, orain meteorologia profesionalagoa egiten dela. Euskalmet, Aemet edo France-Météon unibertsitatetik igarotako jendea dabil, baina hauek zortzi orduko lanegunak egiten dituzte eta ordu horiek osorik ordenagailuari begira. Pello goizeko bostetan jaiki ohi zen udan lagun egina zuen zozoarekin hizketaldi bat egin eta bidenabar zeruari begira lehen irudipenak jasotzeko. Nik Joxe umetatik ezagutu dut eta esan dezaket eguna ematen zuela egiteko horretan, sumatzen zuen laino bakoitzari, haize bakoitzari taxua hartzen, kalkulatzeko. Nekazari mugimenduan, kooperatibismoan ibiliko zen, enpresa bat sortu eta kudeatuko zuen, baina bere benetako zaletasunak bi izan zirela esango nuke (izango dira

oraindik ere) zeruaren edo eguratsaren kontenplazioa eta politika; biak ikuskitu eta bizipen moduan.

Egia da eguraldi iragarleak milaka izan direla gurean. Haiek intuizioan oinarritzen ziren. Bi hauek, ordea, nolabait esateko, zientzian. Umea nintzela, Marxen “Kapitala” eta Mariano Medinak 1964an atera zuen “Iniciación a la meteorología” izaten zituen Joxek gaurmahaiaren gainean. Medinaren aurretik ere kalkulu sasizientifiko batzuk egiten zituen eguraldi aldaketak esplikatzeke eta Internet sortu orduko jakin zuten tresna beren lanerako erabiltzen. Orain bi mende Erresuma Batuko apaiz eta torien artean jaio zen saga edo kate baten azken begiak dira. Aurrrerantzean iragarpena matematika-rien kontua izango da. •

Begietan

Amagoia Mujika
Telleria

Serieko bortxatzaile bat epaitzen ari dira asteotan Donostian, azken urteotan Gipuzkoako hainbat herritan gertatutako dozenatik gora bortxaketaren egilea delakoan. Biktimetako bat bortxatzailearen parean eseri da epaiketan, berak hala eskatuta. Eraso egin zionari «aurpegira begiratzeko» beharra zeukala esan du. Bortxatu zuen egunean ez zion aurpegia ondo ikusi, atzetik harrapatuta eraso ziolako, begiak erakutsi gabe.

Biktimaren aitak, berriz, erasoaren ondoren bere alaba ez dela lehengo bera esan du, indartsua dela eta aurrera egiteko borrokan ari dela, «baina begietan

sumatzen zaio ez dela lehengo pertsona bera». Begietan.

“Miñan” liburuan –Amets Arzallus eta Ibrahima Balde–, Ibrahimak esaten du begietara begira hitz egiten duzunean hitzak ez direla erortzen. Ez dakit bada goen hori esateko modu hoberik.

90 urteko emakume batek, duela hamar kada asko gertatutakoa oso ondo gogoratzen zuela adierazteko, «oraindik begietan daukat» esan zidan behin. Sekulakoa iruditu zitzaidan.

Begietan gordetzen dugun memoria ezin da inoiz itxali, begiak itxita ere ikusten segitzen dugulako. Hori du ona eta txarra. Ona, begietan pizten zaizun

akordua gogoratzeko gozoa baldin bada; txarra, ahaztu nahi eta ezin ahaztu zabiltzanean.

Imajinatu dut emakume horrek bere bortxatzaileari begietara begiratu nahi ziola objektu bat balitz bezala tratatu zuen arren, pertsona izaten segitzeko borrokan ari dela esateko. Hautsi zuen arren, puskak lurretik jaso eta berreraikitzen ari dela esateko. Berak baimenik gabe inbaditu zuen gorputzak berea izaten segitzen duela oihukatzeke. Gustura esango nioke, begietara begira, epaiketa kirasdun eta krudel horretan sumatu dudun argi-izpi bakarra bere begietan piztu dena izan dela. •